



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko azaroaren 30a

34. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### D SAILA:

##### **Hitzarmenak:**

—Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko, bultzatzeko eta indartzeko programa orokor bat prestatu eta legebiltzarrean aurkez dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan animalien gorpuen bilketa prozesua modu arin eta eraginkorrean egin dadin eta erabiltzaileentzako ahalik eta kosturik txikienarekin, kontuan hartuta zerbitzu publiko bat dela, emakida administratibo baten xede izan beharrekoa. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuan egin beharreko behin-behineko irakasleen lan-kontratuak uztail bukaerarako eginak egon daitezen. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateen finantzaketari eta udalerrien mapa modernizatzeko beharrari buruzko proposamen bat aurkez dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroarako eredu ekonomiko berri bat presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Comptos Ganberaren txostena kontuan hartuta, ofizioz berrikus ditzan Donejakue bideko autobiarri buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez Nafarroako Gobernuak obraren prezioa igotzea onartu zuen eta 19,9 milioi euroko gastua bere gain hartu zuen ematean aurreratzeagatik. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Comptos Ganberaren txostena kontuan hartuta, ofizioz berrikus ditzan Iruña-Logroño autobiarri buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez aldatu

ziren autobia hori eraikitzeko, zaintzeko eta ustiatzeko kontratuaren klausulak. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erkidegoan ordezkariak duten sindikatu guztiak kontuan har ditzan bere proposamen, ekintza plan eta elkarrizketa agenda guztietan. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuarekin negoziazioak abiaraz ditzan Autonomia sustatzeko eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aldaketa sustatze aldera. Erretiratutako mozioa (8. or.).

—Adierazpen instituzionala, genero-indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta. Osoko Bilkurak berretsia (8. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren 43/07 Erabakia, azaroaren 9koa, Erakundeari laguntzen ez dioten Administrazioen eta Erakundeen Erregistroa sortzeari buruzkoa (10. or.).

---

**D saila:**  
**HITZARMENAK**

---

**Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko azaroaren 22an egindako bileran, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa onetsi zuen. Aldaketa hori Nafarroako Gobernuak eta nazioko

gobernuak izenpetu zuten 2007ko azaroaren 5ean.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko, bultzatzeko eta indartzeko programa orokor bat prestatu eta legebiltzarrean aurkez dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko azaroaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko, bultzatzeko eta indartzeko programa orokor bat prestatu eta legebiltzarrean aurkez dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko, bultzatzeko eta indartzeko programa orokor bat prestatu eta legebiltzarrean aurkez dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko, bultzatzeko eta indartzeko programa orokor bat prestatu eta legebiltzarrean aurkez dezan, bertan azertu eta eztabaidatzeko. Programa hori Nafarroako Foru Komunitatean egoitza duten edo bertan aritzen diren enpresentzat izanen da eta pizgarriak ezarriko ditu, gutxienez, erantzukizun sozial korporatiboarekin konpromisoa hartzen duten enpresentzat. Halaber, arlo horretako berariazko jarduerak koordinatzeko eta abian jartzeko protokolo bat jasoko du.

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan animalien gorpuen bilketa prozesua modu arin eta eraginkorrean egin dadin eta erabiltzaileentzako ahalik eta kosturik txikienarekin, kontuan hartuta zerbitzu publiko bat dela, emakida administratibo baten xede izan beharrekoa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko azaroaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan animalien gorpuen bilketa prozesua modu arin eta

eraginkorrean egin dadin eta erabiltzaileentzako ahalik eta kosturik txikienarekin, kontuan hartuta zerbitzu publiko bat dela, emakida administratibo baten xede izan beharrekoa".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan animalien gorpuen bilketa prozesua modu arin eta eraginkorrean egin dadin eta erabiltzaileen-tzako ahalik eta kosturik txikienarekin, kontuan hartuta zerbitzu publiko bat dela, emakida administratibo baten xede izan beharrekoa**

1. Gorpuen bilketa zerbitzu publikoa da, erkidego honetako abeltzaintza-ustiategi guztiei eragiten

die eta zerbitzu hori ematen da eginkizunak enpresa bati esleituz. Horiek horrela, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan jakiteko zenbateraino dauden abeltzainak pozik zerbitzu horrekin eta zerbait aldatu behar ote den jakiteko. Era berean, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan emakida administratiboa modu arinean eta indarreko araudia betez gauzatu dadin. Edonola ere, Nafarroa osoko abeltzainek berrmatuta dute abereen gorpuak gehienez ere 48 orduko epean bilduko zaizkiela.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan Europako zuzentarauak baimendutakoaren esparruan kosturik txikiena izan dezan Nafarroako granja eta abeltzaintza-ustiategietako gorpuak bilzteko prozesuak.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuan egin beharreko behin-behineko irakasleen lan-kontratuak uztail bukaerarako eginak egon daitezen.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko azaroaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuan egin beharreko behin-behineko irakasleen lan-kontratuak uztail bukaerarako eginak egon daitezen".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuan egin beharreko behin-behineko irakasleen lan-kontratuak uztail bukaerarako eginak egon daitezen**

1.1 Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behin-behineko irakasleen lanpostuak, ahal dela, uztailaren lehenbiziko astean eslei ditzan eta, betiere, lanpostu horien esleipena uztail bukaerarako amaitua egon dadin.

1.2 Irakasleen kontratuak formalizatuko dira hasiera doan ikasturteko irailaren 1eko datarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hezkuntza Departamentuan egin beharreko behin-behineko irakasleen lan-kontratuak esleitzeko ekitaldia era moderno, berritzaile, argi eta ulergarrian egin dezan.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da toki entitateen finantzaketari eta udalerrien mapa modernizatzeko beharrari buruzko proposamen bat aurkez dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko azaroaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernuak premiatzen da toki entitateen finantzaketari eta udalerrien mapa modernizatzeko beharrari buruzko proposamen bat aurkez dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da toki entitateen finantzaketari eta udalerrien mapa modernizatzeko beharrari buruzko proposamen bat aurkez dezan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du proposamen zehatz bat aurkez dezan zazpi hilabeteko epean, proposamen hori eztabaidatu ahal izan dezaten Nafarroako Parlamentuko talde politiko guztiek, toki entitate guztiek

eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, toki administrazio modernoagoa eta eraginkorragoa helburu.

Proposamen horrek, besteak beste, honakoak aipatu beharko ditu:

a) Udal mapa administratiboaren balizko berrantolamendua, halako moduz non toki entitate indartsuak eta kudeaketa gaitasuna dutenak ahalbidetuko diren, nahitaez udalen edo kontzejuen bategitea ekarriko ez duten figurak sustatuz, eta, beraz, era horretan, orain duten ordezkari politikoari eutsiko dioten, non eta, beren borondatez, ez duten espresuki kontrakoa adierazten.

b) Bakoitzaren eskumenen katalogoak ezartzea, gizarte zuzenago bat ahalbidetzeko eta herri-tarren bizi kalitatea hobetzeko.

c) Finantzaketa sistema gaurkotu bat ezartzea, oinarri izanen dituen aipatutako berrantolamendua eta toki entitateek kudeatu beharko dituzten eskumenak. Toki ogasunen funtsaren banaketa bidezkoa ahalbidetuko duten formulak xedatu beharko dira, toki autonomia errespetatuz eta, betiere, "elkartasun-zorro" bat sortuz, udal txikienei edo ahalmen gutxiago dituztenei beren zerbitzuak baldintza-berdintasunean ematea ahalbidetuko diena.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroarako eredu ekonomiko berri bat presta dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko azaroaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroarako eredu ekonomiko berri bat presta dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Erabakia. Horren bidez,  
Nafarroako Gobernua premiatzen  
da Nafarroarako eredu ekonomiko  
berri bat presta dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroarentzako eredu ekonomiko berri bat diseina dezan, Foru Komunitateko

ordezkari politikoekin eta eragile ekonomiko eta sozialekin lankidetzan, horrek, 2008-2013 eperako garapen iraunkorreko programa batean jasoa, exekutiboaren politika ekonomikoa taxutuko duen garapen integraleko estrategia ezar dezan, oinarri hartuz jakintza, berrikuntza, lehiakortasuna, nazioartekotasuna eta elkartasuna, bai eta talde politikoek horri buruz behin eta berriz esandakoak ere.

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Comptos Ganberaren txostena kontuan hartuta, ofizioz berrikus ditzan Donejakue bideko autobiarri buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez Nafarroako Gobernuak obraren prezioa igotzea onartu zuen eta 19,9 milioi euroko gastua bere gain hartu zuen ematean aurreratzeagatik.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da, Comptos Ganberaren txostena kontuan hartuta, ofizioz berrikus ditzan Donejakue bideko autobiarri buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez Nafarroako Gobernuak obraren prezioa igotzea onartu zuen eta 19,9 milioi euroko gastua bere gain hartu zuen ematean aurreratzeagatik."

Legebiltzarrak, 2007ko azaroaren 22an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2007ko urriaren 29ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Comptos Ganberaren txostena kontuan hartuta, ofizioz berrikus ditzan Iruña-Logroño autobiarri buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez aldatu ziren autobia hori eraikitzeko, zaintzeko eta ustiatzeko kontratuen klausulak.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da, Comptos Ganberaren txostena kontuan hartuta, ofizioz berrikus ditzan Iruña-Logroño autobiarri buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez aldatu ziren autobia hori eraikitzeko, zaintzeko eta ustiatzeko kontratuen klausulak."

Legebiltzarrak, 2007ko azaroaren 22an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2007ko urriaren 29ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da erkidegoan ordezkariak duten sindikatu guztiak kontuan har ditzan bere proposamen, ekintza plan eta elkarrizketa agenda guztietan.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernuak premiatzen da erkidegoan ordezkariak duten sindikatu guztiak kontuan har ditzan bere proposamen, ekintza plan eta elkarrizketa agenda guztietan".

Legebiltzarrak, 2007ko azaroaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2007ko urriaren 29ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Estatuko Gobernuarekin negoziazioak abiaraz ditzan Autonomia sustatzeko eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aldaketa sustatze aldera.**

*ERRETIRATUTAKO MOZIOA*

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2007ko azaroaren 22an egindako bileran, erabaki zuen Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratutzat jotzea: "Nafarroako Gobernuak premiatzen da Estatuko Gobernuarekin negoziazioak abiaraz ditzan Autonomia sustatzeko eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aldaketa sustatze aldera".

Mozio hori 2007ko urriaren 29ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Adierazpen instituzionala, genero-indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta.**

*OSOKO BILKURAK BERRETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko azaroaren 23an egindako bileran, erabaki zuen genero-indarkeriaren aurkako nazioarteko egunari buruzko adierazpen instituzionala berretzea. Adierazpena honako hau da:

«Nafarroako Parlamentuaren ustez, heldu den azaroaren 25ean ospatuko den Genero-indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna "matxismo kriminalaren" aurkako bultzada izan behar du, indarke-

ria izugarri hori "ikusgarri" egiteko baliogarria izan behar du eta gizarte osoaren, talde politiko guztien eta administrazio guztien konpromisoa ekarri behar du, indarkeria mota horrekin amaitzeko.

Gizartearen baitako izurri horren aurrean, Nafarroako Parlamentuak adone emateko mezu bat helarazi nahi die herritarrei, eta, oso bereziki, tratatu txarrak jasaten ari diren emakume guztiei, posible baita indarkeriaren murrizketatik ihes egitea.



Lehenbizikoz Espainian, badago doako telefono nazional bat, 016 zenbakikoa, hogeita lau orduz informazioa eta aholkuak ematen dituena, eta telefono-fakturan arrastorik uzten ez duena. Telefono horren helburua da biktimei laguntza ematea, aurrerapauso bat eman eta salaketa egin dezaten.

Ildo horretan, aurkeztutako salaketen kopuruak gora egin du gurean, ehuneko 70 baino gehiago, 2002tik 2006ra bitartean. Datu positiboa da, fenomenoaren norainokoa agerian uzten duelako, bai eta horrelako baliabide integral baten premia ere. Baina, batez ere, horrek erakusten du tratu txarren biktima diren emakume gero eta gehiago direla ilunpetik atera eta beren etxeetan bizi duten errealitate lazgarria salatzea erabakitzen dutenak.

Horrez gain, kontuan hartu behar da genero-indarkeria ez dela emakumeen afera pribatu bat eta, hortaz, beharrezkoa dela iritzi-aitzindari guztiek gaitzespen publiko eta berariazkoa egitea. Iritzi-aitzindarien multzoan sartuta gaude, hain zuzen, arduradun politikook, eta herritarren ordezkari gisa dihardugun aldetik gure arbuiorik erabatekoena

adierazi behar dugu emakume baten aurka zuzenduriko eraso bakoitzaren aurrean.

Nafarroako Parlamentuak zeresana daukaten administrazio guztiei eskatzen die ahalik eta lankidetz handiena berma dezaten emakume-elkartekin eta berdintasunaren aldeko erakundeekin, genero-indarkeriaren biktimekin lanean ari baitira, eta haiexek ezagutzen baitituzte hobekien haien premiak. Ikuspegi horretatik, azaroaren 25a bezalako egun batean, berriro ere goraipatu nahi dugu elkarte eta erakunde horien lana eta jarduna.

Azkenik, genero-indarkeriaren aurkako jarrera erakusteko dei egiten diegu Nafarroako herritar guztiei, eta azaroaren 25a ardatz gisa harturik antolatzen diren jarduera guztietan parte hartzera gonbidatzen ditugu.»

Eta hau argitaratzen da Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 113.1 artikulua xedatutakoa betez

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren 43/07 Erabakia, azaroaren 9koa, Erakundeari laguntzen ez dioten Administrazioen eta Erakunde-en Erregistroa sortzeari buruzkoa.**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoak eta Konstituzioak babesten dituzten herritarren eskubideen eta askatasunen babes mailaren alde egitea eta babes maila hori hobetzea da Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren helburua.

Bermea emateko duen funtzioan aritzean, administrazio ona izatea eta partikularren eskubi-deak errespetatzea bultzatzen du erakundeak, eta horrek eskatzen dio Nafarroako Foru Komunitateko botere publiko eta erakunde guztiekin lankide-tzan aritzea. Izan ere, botere publiko eta erakunde horiek lehentasunez eta urgentziaz lagundu behar diote Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari, eta egiten dizkien oharren, gomendioen, legezko betebeharren gogorarazpenen eta iradokizunen gainean hartu dituzten neurriei buruzko informa-zioa eman behar diote, edo, neurririk ez badute hartzen, hori egiteko zein arrazoi dituzten jakinara-zi behar diote.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari laguntzeko betebeharra ez betetzeak, informazioa igortzea arrazoirik gabe atzeratzeak, jarduerak ez justifikatzeak eta, azken batean, erakunde harre-manetan gaizki jardutea ekartzen duen beste edo-zein jokaerak, batetik, murriztu besterik ez dute egiten herritarrek parlamentu erakunde hau modu arinean eta eraginkorrean erabiltzeko duten esku-bidea eta, bestetik, legedia urratzen dute.

Laguntzeko betebeharra ez betetzeak adminis-trazioaren alorrean dituen ondorioei dagokienez, nabarmendu behar da Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak adierazten duela administrazio publikoen zerbitzura ari diren langileek, horien gainekoek edo arduradunek informazioa igortzeko eskatzen zaienean jarrera negatibo eta axolagabea izatea, edo erakundearen adierazpenak betetzeko neurri-rik ez hartzea edo neurri horiek behar ez bezala justifikatzea Nafarroako Foru Komunitateko ararte-koaren eginkizunak betetzeko aurkakotzat edo

oztopatzailatzat hartu ahal direla. Izan ere, bere-hala egingo du publiko jokaera hori, eta kalifikazio hori urteko txostenean edo, egokia bada, txosten berezi batean jakinaraziko dio Nafarroako Parla-mentuari.

Era berean, erakunde hau arautzen duen foru legearen 16 e) artikulua aurreikusten du erakun-dearen lanen, ikerketen eta urteko txostenaren izaera ezagutaraztea Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak eskura dituen baliabide guztien bidez eta, bereziki, komunikabide publikoen bidez.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, eta garden-tasunaren alde eta erakundearen jardueraren eta jardura hori dela eta administrazio eta erakunde publikoek duten jokaeraren gaineko informazioa herritarrentzat eskuragarriagoa egiteko asmoz, sortu da Erakundeari laguntzen ez dioten Adminis-trazioen eta Erakunde-en Erregistroa. Izan ere, erregistro horretan publiko egingo da erakunde honen ikerketak eta ikuskatzeak egin ahal izateko eskatzen zaien informazioa igortzen ez duten administrazioen eta erakunde-en zerrenda, egiten zaizkien oharrei, gomendioei, legezko betebehar-ren gogorarazpenei eta iradokizunei erantzuten ez dietenen zerrenda, eta, erakundearen adieraz-pena ez onarturik, hori egiteko arrazoiak egoki ematen ez dituztenen zerrenda.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 16 e), 24.2 eta 24.3 artikuluekin bat,

### **ERABAKI DUT**

**Lehenik.** Nafarroako Foru Komunitateko Arar-tekoari Laguntzen ez dioten Administrazioen eta Erakunde-en Erregistroa sortzea.

**Bigarrenik.** Erregistroa hiru ataletan egitura-tzea. Hain zuzen ere, honako hiru atal hauetan:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak egindako ikerketetarako eta ikuskatzeetarako

eskatutako informazioa igorri ez duten administrazioak eta erakundeak.

b) Egindako oharrei, gomendioei, legezko betebeharren gogorazpenei eta iradokizunei erantzun ez dieten administrazioak eta erakundeak.

c) Erakundearen adierazpena onartu ez eta hori egiteko arrazoiak egoki eman ez dituzten administrazioak eta erakundeak.

**Hirugarrenik.** Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak egindako ikerketetarako eta ikuskatze-erako eskatutako informazioa igorri ez duten administrazioak eta erakundeak hartzen dituen atalak honako datu hauek izatea:

1. Administrazioa edo erakundea
2. Espediente zenbakia
3. Egoki jotzen bada, erantzukizuna duen agintariaren gaineko aipamen berezi negatiboa
4. Gaia
5. Arazoa
6. Igorritako informazio eskaerak, datak adierazita dituztenak
7. Hasierako txostena
8. Errepikatzea
9. Igorritako oharra, data adierazita duena
10. Ixte data, erantzunik jaso ez delako

**Laugarrenik.** Egindako oharrei, gomendioei, legezko betebeharren gogorazpenei eta iradokizunei erantzun ez dieten administrazioak eta erakundeak hartzen dituen atalak honako datu hauek izatea:

1. Administrazioa edo erakundea
2. Espediente zenbakia
3. Egoki jotzen bada, erantzukizuna duen agintariaren gaineko aipamen berezi negatiboa
4. Gaia
5. Arazoa

6. Adierazpen mota (gomendioa, iradokizuna edo legezko betebeharren gogorazpena)

7. Igorritako informazio eskaerak, datak adierazita dituztenak

8. Hasierako txostena

9. Errepikatzea

10. Igorritako oharra, data adierazita duena

11. Ixte data, erantzunik jaso ez delako

**Bosgarrenik.** Erakundearen adierazpena onartu ez eta hori egiteko arrazoiak egoki eman ez dituzten administrazioak eta erakundeak hartzen dituen atalak honako datu hauek izatea:

1. Administrazioa edo erakundea
2. Espediente zenbakia
3. Egoki jotzen bada, erantzukizuna duen agintariaren gaineko aipamen berezi negatiboa
4. Gaia
5. Arazoa
6. Adierazpen mota (gomendioa, iradokizuna edo legezko betebeharren gogorazpena)

**Seigarrenik.** Erregistroko informazioa eguneratua egotea etengabe eta erakundearen webgunean egitea publiko: [www.defensornavarra.com](http://www.defensornavarra.com)

**Zazpigarrenik.** Herritarren nortasunari dagozkien datuak edo horiek identifikatzeko bidea ematen dutenak ez egitea inolaz ere publiko.

**Zortzigarrenik.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean erabaki hau argitara ematea agintzea.

**Bederatzigarrenik.** Erabaki hau 2008ko urtarilaren 1etik aurrera jartzea indarrean. Atal bakoitzean data horretatik aurrerako egintzen eta jokareen gaineko datuak idatziko dira, erreferentzia egiten dieten espedientea lehenago hasi bada ere.

Iruña, 2007ko azaroaren 9a

Nafarroako arartekoa: Francisco Javier Enériz Olaechea

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,34 »	